



2. Merkatuaren segmentazioa

Gure enpresaren helburua adin desberdinetako jende guztiak gure zerbitzua eskuragarri izatea da. Ez gara bezero-talde batean zentratuko, biztanle guztien beharrak asetzea da gure helburua, adina alde batera utzita. Horretarako ekintza desberdinak egingo ditugu, bezero guztiak desberdinak direlako eta denei iristeko.

Hasteko, Zarautzeko ikastetxeetara joango gara hitzaldiak ematera. Honela, umeak eta haiekin dauden irakasleak kontzientziatuko ditugu, errazagoa delako haiengana joan eta gure zerbitzua azaltzea.

Bestalde, esan bezala gure bezeroak adin guztietakoak izatea nahi dugu; beraz, makinak leku desberdinetan jarriko ditugu. Esaterako supermerkatuetan, bertako bezeroentzat eta langileentzat, era honetara bertan ekoizten den plastikoa murriztea lortuko dugu. Gainera, tren eta autobus geltokietan ere jarri nahi ditugu makinak, jende gazte, heldu zein bertako langileentzat, izan ere garraio publikoa erabiltzen duten pertsonak adin desberdinetakoak dira. Azkenik, eskolen ondoan jartzea ezinbestekoa ikusten dugu, haur nahiz irakasleentzat, bertan sortzen den zabor kopurua nahiko handia delako.